

Babes taldearen adierazpena

Jaun-andreok, egunon.

Euskararentzat, eta beraz Euskal Herriarentzat, nortasun handikoa den eremuan bildu gara gaur, *Egunkaria* auziko inputatuek euren adierazpenean ongi azaldu duten moduan.

Euskal herritarrak bildu egiten dituen hariak ekarri gaitu gaur Arantzazura. Lekuak eta gaiak bildu egiten gaitu.

Badu herri honek zertan bildu. Ongi etorria beraz *Egunkariak*, injustiziaren aurka, biltzeko, askotarikoak biltzeko, ematen digun aukera.

Egunkaria auziaren harira sortutako jatorrizko Babes Taldearen izenean doakizue mezu hau. Babes Talde hartatik, eta denok dakizkizuen arrazoiak medio, kide bat falta da gaur hemen: Rafa Diez, LAB sindikatuko idazkari nagusi ohia, hain zuzen.

Gure artean ez da, baina gurekin bai, hori ongi dakigu. Bihoazkio atxilo daukaten kartzela zuloraino gure besarkada beroa, elkartasun zintzoa, eta laster batean kalean ikusteko desio bizia.

Honen ausentzia estaltzeko, eta beste arrazoi batzuk medio bidean geratu zaigun Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusi ohiarena, Ainhoa Etxaide eta Adolfo Muñoz iritsi zaizkigu Babes Taldera, LABeko eta ELAko eguneko idazkari nagusiak, ondo dakizuen moduan.

Ongi etorriak biak, oraindik ere Babes Talde honi bidea geratzen baitzaio.

Lagunok, 2005ean Babes Talde hau sortu zenetik auziaren sobreseimendua eta artxiboa eskatuz jardun dugu etengabe. Ez zen epaiketarik egin behar. Epaiketa burutzea bera bidegabekeria luzatzea zen, bidegabekeriaren katea luzatzea.

Baina hala gertatu da. Ezin izan dugu ekidin. Kate horren azken aurreko begia epaiketa izaki, azkena geratzen zaigu: epaia bera, sententzia. Ez dadila sarraski hau epai zigortzaile baten bidez biribildu. Horretan jarri behar ditugu orain gure ahal guztiak.

Badira, bai, hasiera bezalako bukaera gurako luketenak auziarentzat. Gaur bertan, Donostiako Kurasaalean, *Egunkariaren* aurka Auzitegi Nazionalean ari den taldeetako bat, antzerako beste hainbat ekimen judizialen bultzatzailea, omenduko dute. Ez gara, ordea, probokazioan eroriko.

Iragan hilean Bilbon gauzatutako manifestazio erraldoi askotarikoak 2003an Donostian burututakoen hats beroa ekarri zigun. Bestalde, aurreko astean Gipuzkoako Batzar Nagusietan *Egunkariako* auzipetuen alde onetsitako kontsentsuan alderdi politiko guztiak bildu ziren, bat bakarra izan ezik. Hori bera urrats handia da. Ongi etorriak orain arte publikoki zentzu horretan busti ez eta orain pauso hori eman dutenak. Kontsentsua gero eta nabarmenagoa da.

Egunkariari, auziari oro har, bere bi pieza judizialetan, eta hamar auzipetuetako bakoitzari, absoluzioa zor zaiola beste behin ere ozen esatera etorri gara gaur hona.

Ez da erraza izango. Zazpi urteko inertzia zigortzailea gelditu eta kontrako norantza errugabetzailean jartzea, ez da erraza izango.

Euskal gizartearen hitza indartsu azaltzea, ez dakigu nahikoa izango den auzi hau abian jarri zuen bultzada politikoaren eragina aldarazteko. Baina hitz indartsu hori gabe, ziur ez dela norantza aldaketarik etorriko.

Urte luze hauetako jardunak adierazi digu, bestalde, ez dagoela defentsa jaisterik. Fiskalak sobreseimendu eskaria egin zuenetik, askotan entzun izan ditugu musika goxoak, *Egunkaria* auziaren amaierari dagokionean.

Atseginez entzun ditugu, nola ez. Nola uka itxaropenaren zirrikitua, horren beharrean dagoenari. Eta horrela ginen gu, horrela zegoen euskal gizartea, horrela dago epaiketari eta epaiari, sententziari, begira. Orain

ere bai baitira itxaropenerako zantzuak.

Musika atseginaren eskutik iritsi da, bestalde, letra ere. Eta hau, orain arte, beti gupidagabea izan da.

Musikaren doinu atseginak ez gaitu itsutu behar. Nahi genukeenaren aurkakoa baletor, ez gintuzke berriro ustekabeen harrapatu behar.

Auzitegi Nazionalean asko dira ustez defentsak irabazitako epaiketen haritik galdutako sententziak. Halakorik getatuko balitz, euskal jendarte askotarikoak *Egunkaria* auzian adierazi duen kontzientzia kritikoa eta jarrera aktiboa ez bitza ahulduta harrapa.

Euskal jendartea, bere kontzientzia kritikoa, jarrera aktiboa. Horiek dira gure helburuaren alde dauzkagun baliorik sendoenak. Beharrezkoak ditugunak, bestalde, ez bakarrik *Egunkaria* auzirako, beste itxaropen batzuetarako ere bai.

Itxaropen horiek guztiak gogoan, diogu, *Egunkaria* auzirako, ABSOLUZIOA.

Injustizia eginda dago, handia da eta ez dauka itzulerarik. Ez dadila biribildu balizko sententzia zigortzaile baten bidez.

Absoluzioa, beraz, bi hitzetan: EGUNKARIA LIBRE!

Eskerrik asko.

Arantzazun, 2010eko urtarrilaren 23an